

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Euskara ikasteko dirulaguntzetarako deialdia. 2022ko uda

Tokiko Gobernu Batzarraren 2022ko maiatzaren 6ko ohiko bilkuran, 2022ko udan euskara ikastea sustatzeko beka batzuen deialdia onartu zen.

Hartutako erabakiaren hirugarren atalean jasotakoari jarraiki eta indarreko legerian xedatutakoa betez argitara ematen dira, objetibotasun, lehia eta publizitatearen printzipioak bermatu daitezzen.

Laudio, 2022ko maiatzaren 6a

Alkatea

ANDER AÑIBARRO MAESTRE

DEIALDIA

Lehenengoa. Deialdiaren xedea

Deialdiaren xedea da 2022ko udan euskara ikasteko beka gisa dirulaguntzak ematea, hau da, 2022ko ekain, uztail, abuztu edo irail hilabeteetan burututako ikastaro trinkoetarako. Deialdi hori Laudio Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantzak arautuko du (ALHAO, 28. zenbakia, 2021eko martxoaren 10ekoa).

Bigarrena. Emateko araubidea eta ordenantza arautzailea

Dirulaguntzak norgehiagoka-araubidean emango dira.

Nolanahi ere, prozedura irekia bada ere, ez da hertsiki aplikatuko norgehiagokakoetarako araubidea, eskaerei partidaren zenbateko osoa agortu arte erantzungo baitzaie. Aurreikuspen hori bat dator Dirulaguntzen Lege Orokorra onetsi zuen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bigarren 55-1 artikulua 2. paragrafoarekin. Artikulu horren arabera, salbuetsi egin daiteke aurkeztutako eskabideen lehentasun-ordena errespetatzeko betekizuna, baldin eta deialdian adierazitako kreditua nahikoa bada, eta, betiere, aurkezteko epea amaitu ondoren ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten eskatzaile kopurua kontuan hartuta.

Hirugarrena. Onuradunak

Deialdi honen onuradun izan ahalko dira Laudion erroldatutako pertsona fisiko guztiak, eskatutako baldintza bakoitza betetzen badute. Hauek dira baldintza horiek:

a) Deialdian jasotako aldien barruan eta euskaltegi homologatu batean euskara ikastaro bat egin izana. Deialdi honetako epeek ikastaroren bat osorik betetzen ez badute, laguntzaren ehuneko proportzionala bat emango da, aldi horretan sartutako egun naturalen arabera. Nolanahi ere, beste talde bat erabili ahal izango da, edo dirulaguntzaren geroagoko deialdi bat baztertutako aldiari dagokion laguntza jaso ahal izateko.

b) Ikastaroak dirauen bitartean Laudioko udalerrian erroldatuta egotea. Ikastaro osoan egoera horretan ez dauden pertsonen kasuetan, igarotako egun jarraituen arabera zati proportzionala ordainduko da.

c) Ikastaroko eskola orduen ehuneko 85ean gutxienez egon izana. Hori egiaztatzeko, euskaltegiko zuzendaritzak emandako ziurtagiria bakarrik onartuko da baliozkotzat. Ziurtagiri horretan jasoko dira eskainitako eskola-orduen kopurua, eskatzaileak aprobetxatutakoak eta bi kopuruen arteko ehunekoa. Era berean, ikasturtearen hasierako eta amaierako data teorikoak zehaztuko ditu, baita ikasleak egindako aldiari dagozkionak ere, berberak ez badira (ikastaro osoa egin ez bada). Informazioa ikaslearen banakako datu pertsonalekin (izen-abizenak eta NAN zenbakia) eta matrikula gisa ordaindutako zenbatekoarekin osatuko da.

d) Laudio Udalak egin beharreko egiaztapen-jarduerak eta kontrol-organo eskudunek, Estatukoek zein erkidegokoek, finantza-egiaztapenerako eta kontrolerako egin dezaketen beste edozein jarduera ere. Horrez gain, aurreko jarduerak gauzatzeko eskatzen zaien informazio guztia ematea.

e) Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

f) Laudio Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.

g) Gutxienez, ikastaroaren egunen erdian langabezian egotea. Diruz lagun daitekeen gastuaren ehuneko 100era arteko laguntza jaso nahi duten eskabideei soilik eskatuko zaie baldintza hori.

Laneguntzat hartuko dira ordutegi osoko lanaldiak. Lanaldi murriztuko lanen kasuan, horien ordu-batura egingo da lanaldi osoen baliokidea kalkulatzeko.

h) Ikasturte bererako jasotako edo eskatutako beste dirulaguntza batzuen berri ematea Udalari. Edonola ere, jasotako laguntzen baturak ezingo du inoiz diruz lagundu daitekeen gastua gainditu.

i) Jasotako funtsen frogagiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatze eta kontrol-jarduketan xede izan baitaitezke.

j) Eskabidean edo aurkeztutako dokumentazioan adierazitako datuak egiazkoak izatea. Horietan edozein faltsukeria atzemanaz gero, dirulaguntza automatikoki ukatuko da.

Ezin izango dira onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluan edo dirulaguntzak arautzen dituen udal-ordenantzan jasotako egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak.

Laugarrena. Eskabideak aurkezteko epeak eta moduak

4.1. Epeak.

Eskabideak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da, eta 2022ko urriaren 17an amaitu.

4.2. Eskabideak aurkeztea.

Eskabideak udaletxeko Idazkaritza Nagusian aurkeztuko dira (Herriko Plaza, z/g, 01400 Laudio) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehaztutako beste edozein modutan.

Aurkeztutako dokumentazioan irregulartasunen bat edo akatsen bat atzematen bada, hamar eguneko epea emango da zuzentzeko, eskabidea aurkeztu den egunetik aurrera zenbatuta.

Epe hori agortutakoan eskabidea zuzendu ez bada, artxibatu egingo da, eta ez du administrazio-baliorik izango.

4.3. Dokumentazioa.

Agiri hauek aurkeztu beharko dira nahitaez:

1. Eskabidea inprimaki normalizatuan, eskatutako datu guztiekin.

2. Ikastaroaren matrikularen ordainagiri originala. Baldintza hori ez da beharrezkoa izango udal euskaltegiko ikasleentzat.

3. Euskaltegiko zuzendaritzaren ziurtagiria, ikasleari, ikastaroari eta bertaratzeari buruzko datuak jasota. Baldintza hori ez da beharrezkoa izango udal euskaltegiko ikasleentzat.

4. Ikastaro bera egiteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuetan aurkeztutako beste laguntza-eskaera batzuk jasotzen dituen zinpeko aitortpena. Ahalik eta epe laburrenean jakinaraziko zaizkio udalari dagozkion ebazpenak. Eskatzaileei ematen zaien eskabide-inprimakiak aitortpen honen betekizuna formalizatzeko eredu bat dauka.

5. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, hau da, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikulua-ren 2. eta 3. paragrafoak aplikatuz, onuradun izateko debekurik ez duela edo debekurik ez duela egiaztatzen duen zinpeko aitortpena. Eskatzaileei ematen zaien eskabide inprimakiak aitortpen honen betekizuna formalizatzeko eredu bat dauka.

6. Eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionala.

7. Ikastaroa egin den aldiko lan-bizitza egiaztatzen duen agiria, Gizarte Segurantzaren Diru-zaintzak emana, ikastaroaren erdia baino gehiago langabezian egoteagatik deialdi honen seigarren puntuan jasotzen den bezala diruz lagun daitekeen gastuaren ehuneko 100 jaso nahi duten eskatzaileen kasuan.

Bosgarrena. Eskabideak aztertzea, ebazpena ematea eta organo eskudunak

Eskabideak batera azertu eta ebatziko dira eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan.

Azertu ondoren, txosten tekniko bat idatziko da, eta txosten hori izango da ondorengo ebazpen-proposamenaren oinarria. Txostenak alkate-udalburuaren onespena izango du.

Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio behin betiko ebazpena ematea, hargatik eragotzi gabe alkate-udalburuak eskumena bereganatzea presa dagoen kasuetan.

Kasu horretan, erabaki horren berri emango litzaieke Tokiko Gobernu Batzarreko kideei, erabakia hartu eta hurrengo bileran.

Ebazpenean onuradunen zerrrenda eta bakoitzak jaso beharreko zenbatekoak jasoko dira. Ukatzen den kasuetan, hori egiteko arrazoiak emango dira.

Ebazpena eskabideak aurkezteko epea itxi eta gehienez hiru hilabeteko epean eman eta jakinaraziko da.

Ebazpena edozein dela ere, aurkaratu ahal izango da, urriaren 1eko 39/2015 Legean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan ezarritako kasuetan eta moduan.

Egokitzat joz gero, Udalak datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu bere azterketa eta balorazioa osatzeko aurkeztutako dokumentazioei buruz, eta hamar eguneko epean ematen ez badira, espedientea artxibatu ahal izango da.

Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio eskatzaileek egin ditzaketen aurkaratzeak ebaztea.

Seigarrena. Bekak emateko araubidea

Deialdien bidez euskara ikasteko emango diren laguntzak kalkulatzeko, diruz lagundu daitekeen gastu bat hartuko da abiapuntutzat, eta eskatzaileak gastu horren ehuneko bat jasoko du beka gisa; gehienez ere, ikastaroaren kostu osoa jaso ahal izango du.

Diruz lagun daitekeen gastu hori zehazteko, ikastaroa osatzen duten aurrez aurreko eskola orduen kopurua hitzartutako ordu bakoitzeko prezio batez biderkatuko da. Deialdi honetarako erreferentzia-prezioa Udal Euskaltegiaren eskaintzarekiko hurbilketa bat izango da, oraingo kasuan, 1,21 euro ikasturteko eskola-ordu bakoitzeko. Kopuru hori ikastaro trinkoetan eta bar-netegietan ere aplikatuko da.

Diruz lagundu daitekeen gastu horren gainean, bekaren azken zenbatekoa zehaztuko duen ehuneko bat aplikatuko da, eta ehuneko 50 arte emango da eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskabide guztietan.

Eskatzaileak egiaztatzen badu baldintza orokorrak betetzeaz gain, langabezia eman dituela delako ikastaroaren egunen erdia edo gehiago, diruz lagun daitekeen gastuaren ehuneko 100era arte jasoko du.

Nolanahi ere, jaso beharreko laguntzak ezin izango du inoiz gainditu ikastaroaren matrikularen zenbatekoa, beraz, doitu ahal izango da. Matrikula, eskola-lanari dagokion zenbatekoa izango da eta kanpoan geratuko dira bestelako gastuak, hala nola, bidaia-gastuak, materiala, mantenua, ostalua eta abar.

Halaber, urte natural batean pertsona batek euskara ikasteagatik jasotako beka guztien baturak ezin izango du 1.000 euroko zenbatekoa gainditu.

Eskabide guztiei aurre egiteko aurrekontu-esleipena egin bada, diruz lagun daitekeen gastuaren ehuneko 50 edo 100 ordainduko da. Halakorik egon ezean, ehuneko horiek murriztuko dira, eskuragarri dagoen aurrekontuarekin doitu arte.

Zazpigarrena. Ebazpena jakinaraztea eta ordaintzeko modua

Tokiko Gobernu Batzarrak edo alkate-udalburuak, hala erabakiz gero, ebazpena onetsi ondoren, eskatzaile bakoitzari banan-banan jakinaraziko zaio, gehienez ere, hamar eguneko epean, eskabidean adierazitako helbidean.

Ordainketa eskatzaileak horretarako emandako kontuan egingo da.

Dirulaguntza emateko ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari.

Deialdi hau eta haren ondoriozko administrazio-egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira, urriaren 1eko 39/2015 Legean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan ezarritako kasuetan eta moduan.

Zortzigarrena. Zenbatekoa

Deialdi honetako ebazpenen ondoriozko azken zenbatekoek ezingo dituzte inola ere gainditu aurrekontu-aurreikuspenak, alegia:

5.000 euro 2022ko udan egindako euskara ikastaro trinkoetarako.

Dirulaguntza modalitate desberdinen ondoriozko 5.000 euroko guztizko gastua Audio Udaren 2022ko aurrekontu orokorreko 0900-3351-48002 ("Udako euskara ikastaro trinkoak egiteko beka") aurrekontu-aplikazioaren kontura egingo da.

Hala ere, 887/2006 Errege Dekretuak, uztailaren 21ekoak, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duenak, 58. artikuluan xedatzen duenez, premia izanez gero, eta organo eskudunak hala erabakiz gero, deialdi honetara bideratutako zenbatekoa 2.500 euroan handitu ahal izango da. Neurri hau kreditu egokia eta nahikoa izatearen baldintzapean hartuko da.

Bederatzigarrena. Kontrola

Dirulaguntza ematen duen organoak egokitzen dituen administrazio kontrolak eta ikuskapenak egin ahal izango ditu, aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla eta laguntza jasotzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

Onuradunak ikuskapen horretan lagundu beharko du, eskatutako datuak emanez.

Hamargarrena. Dirulaguntza galtzea

Beken onuradunek beherago zehazten diren baldintzaren bat betetzen ez badute, Hizkuntza Normalizazio eta Identitate Zerbitzuak berak proposatuko du jasotako zenbatekoak itzultzeko

betebeharra, gehi dirulaguntza ordaintzen den unetik aurrerako berandutze-interesa, Audio Udalaren kontura transferituz. Itzulketa proposamen hori alkate-udalburuaren bidez hasiko da eta Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko du.

Honako kasu hauetan hasiko da dirulaguntza galtzeko espedientea irekitzea:

- a) Eskabidean edo aurkeztutako dokumentazioan adierazitako datuak faltsutzea.
- b) Bekaren zenbatekoa, bakarka edo beste laguntza publiko edo pribatu batzuekin batera, onuradunak garatu beharreko diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izatea.
- c) Ez jakinaraztea Audio Udalari beste dirulaguntza publiko edo pribatu batzuk jaso izana, nahiz eta Audio Udalak dagokion likidazioa onartu.
- d) Eta, oro har, deialdi honetan ezarritako edozein betebeharrak ez betetzea.

Hamaikagarrena. Arau-haustea eta dagozkien zehapenak.

Deialdiko baldintzetako edozein ez betetzeak emandako laguntza galtzeaz gain, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, hau da, Dirulaguntzen Lege Orokorraren IV. tituluan azaldutako arau-hausteen eta horiei dagozkien administrazio zehapenen araubidean sartzea ekarriko du.

Hamabigarrena. Garapena, interpretazioa eta hedapena

Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrak emango ditu dagokion deialdia garatzeko behar diren ebazpenak, Audio Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (ALHAO, 28. zenbakia, 2021eko martxoaren 10ekoa) aplikatuta.

Indarrean dagoen deialdia interpretatzeko edozein zalantza badago, Udal honetako Tokiko Gobernu Batzarrak ebaziko du.

Deialdi hau osorik argitaratuko da ALHAOn eta Udalaren webgunean (www.laudio.eus), eta ahalik eta zabalkunderik handiena emateko ahalegina egingo da. Horrez gain, deialdiaren laburpena Dirulaguntzen Datu-base Nazionalan argitaratuko da.

ALHAOn testua osorik argitaratu ondoren jarriko da indarrean deialdi hau.



**LAUDIO
UDALA**
AYUNTAMIENTO
DE LLODIO

E09.01

Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio (Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P01038001
laudio@laudio.eus
Tfno.: 010 / 944034800

EUSKARA IKASTEKO BEKAK / Becas estudio euskera

ESKARIA AURKEZTEN DUEN PERTSONA EDO ENTITATEA / PERSONA O ENTIDAD QUE PRESENTA LA SOLICITUD			
1. abizena / 1 ^{er} apellido	2. abizena / 2 ^o apellido	Izena / Nombre	NAN-AIZ-Pasaportea / DNI-NIE-Pasaporte
<input type="checkbox"/> Interesduna naiz / Soy la persona interesada		Sexua / Sexo	Giz. / Hom. <input type="checkbox"/> Ema. / Muj. <input type="checkbox"/> Bestel. / Otras <input type="checkbox"/>
<input type="checkbox"/> Hau ordezkutzen dut / Represento a		Ordezkatuaren NAN-AIZ-Pasaportea-IFZ / DNI-NIE-Pasaporte-NIF del representado/a	

JAKINARAZPENAK / NOTIFICACIONES (según Ley 39/2015 Legearen arabera)			
<input type="checkbox"/> Euskaraz <input type="checkbox"/> En castellano			
<input type="checkbox"/> Elektronikoki (ziurtagiri digitala behar da) / Electrónicamente (se necesita certificado digital)			
E-posta (abisuetarako) / E-mail (para avisos)			
<input type="checkbox"/> Posta arruntaz / Por correo ordinario			
Kalea / Calle	Zk. / Nº	Solairua / Piso	Aldea / Mano
P.K. / C.P.		Lurraldea / Provincia	
Herria / Municipio		E-posta / E-mail	

BANKU KONTUA (beka ordaintzeko) / CUENTA BANCARIA (para abono de beca)				
IBAN	Erakundea / Entidad	Bulegoa / Oficina	K.Z / D.C	Kontu Zenbakia / Número de cuenta

IKASTAROA / CURSO
<input type="checkbox"/> Ikasturte arrunta / Curso normal <input type="checkbox"/> Udako ikastaro trinkoa / Cursos intensivo verano

EUSKALTEGI / CENTRO
<input type="checkbox"/> Udal euskaltegia / Euskaltegi municipal <input type="checkbox"/> Bestelako euskaltegia / Otro euskaltegi

DOKUMENTAZIOA ETA BETEKIZUNAK / DOCUMENTACIÓN Y REQUISITOS
<input type="checkbox"/> Ez nago laguntzak eskuratzeko legez ezindua. / No incurso en prohibición alguna para obtención de subvenciones.
<input type="checkbox"/> Ikastaro berbera egiteko EZ dut bestelako laguntzarik eskatu. / NO se ha solicitado ninguna otra ayuda para el mismo curso.
<input type="checkbox"/> Bestelako laguntza eskatu da. / Se han solicitado más ayudas. Non: / Dónde:
<input type="checkbox"/> Lanean izan naiz ikasturteak iraun bitartean. / En empleo durante el curso.
<input type="checkbox"/> Langabea izan naiz ikasturteak iraun bitarteran. / En desempleo durante el curso.
<input type="checkbox"/> Eskatzailearen NANaren fotokopia. / Fotocopia del DNI del solicitante.



E09.01

Herriko Plaza, z/g
01400
Laudio/Llodio (Araba)
www.laudio.eus
IFZ/NIF: P01038001
laudio@laudio.eus
Tfno.: 010 / 944034800

LANGABEZIAN EGOTEA MARKATU DUTEN ESKATZAILEEI SOILIK ESKATZEN ZAIEN DOKUMENTAZIO BEREZIA: / DOCUMENTACIÓN EXTRAORDINARIA SOLO EXIGIDA A SOLICITANTES QUE HAN MARCADO ESTAR EN DESEMPLEO:

- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak jaulkitako lan-bizitzaren egiaztagiria. /** Certificado de vida laboral del Instituto Nacional de la Seguridad Social.
- Ez dut baimentzen (horrela bada bete ezazu beheargoko laukia). / No lo autorizo (de ser así, rellena el cuadro inferior).**

UDALAK EGIAZTAPENAK EGITEKO BAIMENIK EMAN EZ DUTEN ESKATZAILEEI SOILIK ESKATZEN ZAIEN EZOHIKO DOKUMENTAZIOA: / DOCUMENTACIÓN EXTRAORDINARIA SOLO EXIGIDA A SOLICITANTES QUE HAN MARCADO NO AUTORIZAR COMPROBACIONES POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO:

- Arabako Foru Aldundiarekiko zerga-ordainketetan egunean egotearen ziurtagiria. /** Certificado de encontrarse al corriente en pagos tributarios con la Diputación Foral de Álava.
- Gizarte-Segurantzako Institutu Nazionalarekiko ordainketetan egunean egotearen ziurtagiria. /** Certificado de encontrarse al corriente en pagos con el Instituto Nacional de la Seguridad Social.

LAUDIOKO UDALARENA EZ DEN BESTE EUSKALTEGI BATEAN IKASI DUTEN ESKATZAILEEI SOILIK ESKATZEN ZAIEN EZOHIKO DOKUMENTAZIOA: / DOCUMENTACIÓN EXTRAORDINARIA SOLO EXIGIDA A SOLICITANTES QUE HAN ESTUDIADO EN UN EUSKALTEGI DIFERENTE AL MUNICIPAL DE LLODIO:

- Ikastaroaren matrikula ordainagiria (jatorrizkoa). /** Justificante original del pago de la matrícula.
- Euskaltegi edo barnetegiaren egiaztagiria jasoz: eskatzailea, matrikularako ordaindutakoa, egindako ikastaro maila eta ordu-erregimena eta bertaratzea. /** Certificado del euskaltegi con: solicitante, importe de la matrícula, nivel cursado, régimen horario y asistencia.

Dokumentu hau sinatzeak baimena ematen dio Laudioko Udalarri, eskura dituen datu-bitartekaritzako sistemen bidez, edozein administrazioaren esku dauden eta espediente hau izapidetzeko beharrezkoak diren datuak egiaztatzeko eta kontsultatzeko, berariaz aurka egiten ez baduzu behintzat. **AURKA EGONEZ GERO, DAGOKION DOKUMENTAZIOA AURKEZTU BEHARKO DU.**

EGIAZTAPEN HORREN AURKA BAZAUDE, MARKATU X BATEZ HONAKO LAUKI HONETAN:

- Aurka nago**

La firma del presente documento autoriza al Ayuntamiento de Llodio, mediante los sistemas de intermediación de datos disponibles, a realizar las comprobaciones y consultas estrictamente necesarias de los datos que obren en poder de cualquier Administración y que resulten precisos para la tramitación del presente expediente, salvo que usted se oponga expresamente. EN CASO DE OPOSICIÓN DEBERÁ APORTAR LA DOCUMENTACIÓN CORRESPONDIENTE.

SI USTED SE OPONE A DICHA COMPROBACIÓN MARQUE CON UNA X EN EL SIGUIENTE RECUADRO:

- Me opongo**

Data / Fecha

Sinadura / Firma

DATU PERTSONALEN BABESA

Laudioko Udalak datuak tratatzen ditu hiritarren eskabideei arretari buruzko espedienteen kudeaketa eremuan. Toki Arabidearen Oinarrizko arautzeko 7/1985 Legearen arabera eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen arabera. Datu pertsonalak bidali ahal dizkie gaitan eskumenak dituzten beste Administrazio Publiko batzuei. Zure eskubideak erabili ditzakezu honen aurrean, dpd_dbo@laudio.eus, eta informazio gehiago izan dezakezu hemen, Laudioko gardentasun atarian www.laudio.eus

PROTECCIÓN DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL

El Ayuntamiento de Laudio trata datos en el ámbito de la gestión de expedientes relativos a atención de solicitudes de la ciudadanía de acuerdo con la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases del Régimen Local y Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. Los datos personales podrán ser comunicados a otras Administraciones Públicas con competencia en la materia. Puede ejercer sus derechos ante dpd_dbo@laudio.eus, y ampliar información en el portal de transparencia www.laudio.eus